



DERMATITIS SEBORREIKOARI BURUZKO INFORMAZIOA

ZER DA DERMATITIS SEBORREIKOA?

Larruazaleko hanturazko gaixotasun onbera kronikoa da, oso ohikoa biztanleria orokorrean.

Bi modu kliniko daude eskuarki:

- **BULARREKO HAURRARENA:** bizitzako lehen asteetan hasten da, eta, batez ere, buruko ile-larruari eragiten dio, "sabeloia". Hilabete batzuetan konpondu ohi da, tratamenduarekin edo gabe.
- **HELDUARENA:** pubertaroaren ondoren hasi eta modu kronikoan egiten da, hobekuntza-aldiak eta agerraldi-aldiak txandakatuz. Ohiko zeinuak gorritasunak eta ezkatat dira, buruko larruazal, aurpegi, eskote eta bizkarrean, sebazeo-guruin kopuru handieneko eremuetan. Tratamenduek larruazaleko lesioak kontrolatzen dituzte.

ZERK ERAGITEN DU?

Arrazoa zein den zehazki ez jakin arren, jakin badakigu aldaketak gertatzen direla sebajariaketan eta larruazalaren immunitatean. Eta horrekin erlazionatzen dute normalean gure larruazalean bizi den Malassezia generoko onddo saprofito bat ere.

Askoz ohikoagoa eta larriagoa da GIBak infektatutako pazienteetan eta gaixotasun neurologiko kronikoak (Parkinson...) dituzten pazienteetan.

DERMATITIS SEBORREIKOAK OKERRERA EGITEN DU:

- Neguan eta tenperatura baxuekin.
- Estres emozionaleko egoeretan.
- Kosmetiko koipetsuak erabiltzean.
- Sukarra edo narritadura orokorra eragiten dituzten gaixotasunekin.
- Eguneroko higieena eskasa denean.
- Xaboi fuerteak, alkohol-disoluzioak eta bestelako narritatzaileak erabiltzean.
- Nire dermatologoak aholkatutako tratamendua uztean.

ZER EGIN DERMATITIS SEBORREIKOA BADUT?

- Joan dermatologoarengana eta **ez automedikatu**.
- Koipe-eduki gutxiko dermokosmetikoak erabili.
- Egunero xaboi neutroak erabili eremu gaixoetan, eta higieena on bat mantendu.
- Eguzkiak hobetu ditzake sintoma klinikoak, baina beti tentuz hartuta eta eguzki-babesle bat emanda.